

Ordizian, **bi mila eta zazpiko otsailaren 22an** UDALBATZARRAK **OHIKO BILERA** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Alejandra Iturrioz Unzueta and.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Jose L. Ormazabal Garmendia jn.	EAJ	taldea	
J. Miguel Santamaría Ezeiza jn.	EAJ	taldea	
Joxe Arizmendi Berakoetxea jn.	EA	taldea	(boz)
Agurtzane Antoñana Arizmendi and.	EA	taldea	
Jesus M.Lariz Orbezabal jn.	EA	taldea	
Manuel Iturrioz Perez jn.	EAJ	taldea	
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	PSE-EE(PSOE)	taldea	(boz.)
Julian Carrasco Obregon jn.	IU-EB	taldea	(boz)

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Ricardo Hueso Abancens	PP	taldea	(boz)
Eneko Ándueza Lorenzo	PSE-EE (PSOE)		
Monica Marañon Basarte	PSE-EE (PSOE)	taldea	

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

INTERPRETARIA:

Garbiñe Mendizabal Mendizabal .



BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

- .- Julen Agirre Iturrioz jauna etorri da bilerara.
- .- Manuel Iturrioz jauna atera egin zen bileratik 8.puntuan.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1.- 2006ko abenduaren 21eko bilkuraren akta onartu.	4. orria
2.- Etxerat aurkeztutako mozioa , Iñaki de Juanari buruzkoa	4. orria
3.- EAJ/PNVek aurkeztutako mozioa Euskal Erakundeen judizializazioaren kontra.	8. orria
4.- 2007ko aurrekontu orokorra	10. orria
5.- 2007rako Plantila Organikoa.	19. orria
6.- 2007rako lanpostuen zerrenda.	21. orria
7.- Kreditu gehigarrien 1 zk.dun espedientea onartu.	22. orria
8.- Tráfico Ordenantza aldatzea.	24. orria
9.- GOIEKI S.A.ren kapitala handitzea.	30. orria
10.- 143 zenbakidun ebazpenaren berri eman Kasazio-Errekuntso batean Udalaren agerraldia onartuz.	32. orria

AZKEN ORDUAN SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

Iñaki de Juana Chaos presoaren gaineko salaketa-kartelekin etorri da dozena bat pertsona, "Democracia a la española" lemarekin, eta zinegotzien mahaietan bana utzi dituzte.



GALDE-ERREGUAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19,00 etan

AMAIERA: 20,15etan



Bilkurari hasiera eman eta gero, Lehendakariak lehenengo puntuaren berri eman du.

1.- 2007ko abenduaren 21ean egindako ohiko bileraren akta.

Proposamena

2006ko abenduaren 21ean egindako ohiko bileraren akta zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Antoñana anderea ez zen bilkuran izan eta euskarako aktan egon izana bezala azaltzen da, gainera Ormazabal jauna ere 2 aldiz ageri da etorri ez zirenen artean.

Zuzendu egin da.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 3, EA 2, PSE-EE/PSOE 1, IU/EB1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ 1, EA 1 ez zirelako bilera honetan egon)

Beraz Alkate andreak aurkeztutako akta onartutzat jo du.



Ondoren Alkate andreak eguneko aztergaien bigarren puntuaren berri eman du:

2.- Etxerat aurkeztutako mozioa , Iñaki de Juanari buruzkoa

Proposamena

Gure senide Iñaki de Juana donostiarra hil ala biziko agüeran aurkitzen da espainiar Estatuak ezarritako condena oso-osorik bete ostean ez dutelako askatu. Espainiar Estatuak ezarritako condena 2000. urtean



bete arren (orduan bete baitzuten condenaren 3/4eank) ez zuten askatu. Condena oso-osorik 2004. urtean bete zuen baina orduan ere ez zuten askatu. Batetik, ebazpen judizialen bitartez onartuak zituen erredentzioak egun batetik bestera kendu egin zizkiotelako eta, bestetik, Espainiakko agintariak publikoki aitortu zuten bezala, edozein bitarteko erabiliz, kasu honetan bi iritis artikulurengatik, gure Iñaki ia beste 13 urtera kondenatu dutelako.

Guzti honengatik Iñaki gose greba mugagabea egiten ari da eta, egun, Madrilgo 12 de octubre ospitalean dute bere nahiaren aurka elikatuz, bere bizia arrisku larrian delarik.

Egoera ezin larriago honek, gure senide Iñakiren visitas arrisku larrian baita, ondoko lerroetan laburbiltzen den mozioa urgentziaz tratatua eta Udal honek onartua izatea eskatzea garamatza:

- Udal honek Iñaki de Juanaren berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari.
- Udal honek bere ekimenak antolatuko ditu Iñakiren askatasunaren alde (herritarrei parte hartzera deituz), edo jada antolatzen diren ekimenetan parte hartuko du.
- Erabaki honen berri komunikabideei zein herritarrei emango zaie.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Santamaria jn.

Aukerazko mozioa irakurtzeari ekin dio, EAJ-PNV taldeak sinatutakoa, eta aurreko Osoko Bilkura batean Ezker Abertzaleak aurkeztu eta aztertutakoa izan zena, preso politikoen egoeraren gainean orokorki eta, Iñaki de Juanaren egoerari buruz, bereziki.

“ETXERAT”, Iñaki de Juanak eta oro har preso dauden euskal hiritarrek bizi duten egoeraren inguruan aurkezten duen mozioaren aurrean, EAJ-PNV-ren udal taldeak honako mozio alternatiboa aurkezten dio udaletxe honetako osoko bilkurari:

1.- *Printzipio humanitarioekin, zein gizaki ororen eskubide eta askatasunekin dugun konpromiosaren baitan, askatasunik gabe dauden euskal hiritar guzti-guztien eskubideen errespetu zorrotza exijitzen dugu.*

2.- *Preso dauden hiritarrei dagozkien eskubideen errespetua egoera politico zehatzen gainera egon behar du beti. Bere burua zuzenbidezkozkak duen Estatu batek ezin dezake inolaz ere lege iruzurraren bitartez pertsona baten eskubiderik zanpatu.*

3.- *Honela, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presten askatasuna eskatzen dugu.*



4.- Zehazki lñaki de Juana presoak bizi duen egoerari dabokionez, kasu honetan ere, beste guztietan bezala, legeak eskaintzen dizkion eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu, bere askatasuna ekiditeko egin den lege erabilpen maltzurra gaitzesten dugularik.

5.- Konponbideak guztien eskubideen begirunetik etorriko direla zinez sineste dugu, eta horregatik, deialdi berezia luzatzen diegu prozesu honetan inplikaturata dauden alde guztiei eskubide horiekiko konpromiso sendoa har dezaten.”

Carrasco jna.

6.puntua sartzea eskatu du, honako eduki honekin: “Jose Luis Rodríguez Zapatero, Gobernuko Presidenteari helarazi hartutako erabakia”.

Puntu hau mozio alternatiboan sartzea bozketapean jarri da:

IU/EB aurkeztutako proposamena mozio alternatiboan sartzearen bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 4, EA 3, IU/EB 1)

Abstenzioak: 1 (PSE-EE/PSOE 1)

Aurkakoak:0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkate andreak.

Puntua sartu eta gero, EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa bozketapean jarri da lehenik, gero ETXERAT plataformak aurkeztutako mozioa bozkatzeari ekiteko.

Mozio alternatiboaren bozketa

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 8 (EAJ 4, EA 3, 1 IU/EB)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE 1)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkate andreak, eta hona hitzez hitz idatzita:

““ETXERAT”, lñaki de Juanak eta oro har preso dauden euskal hiritarrek bizi duten egoeraren inguruan aurkezten duen mozioaren aurrean, EAJ-PNV-ren udal taldeak honako mozio alternatiboa aurkezten dio udaletxe honetako osoko bilkurari:



1.- Printzipio humanitarioekin, zein gizaki oren eskubide eta askatasunekin dugun konpromiosaren baitan, askatasunik gabe dauden euskal hiritar guzti-guztien eskubideen errespetu zorrotza exijitzen dugu.

2.- Preso dauden hiritarrei dagozkien eskubideen errespetua egoera politico zehatzen gaineratik egon behar du beti. Bere burua zuzenbidezkozkak duen Estatu batek ezin dezake inolaz ere lege iruzurraren bitartez pertsona baten eskubiderik zanpatu.

3.- Honela, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presten askatasuna eskatzen dugu.

4.- Zehazki Iñaki de Juana presoak bizi duen egoerari dagokionez, kasu honetan ere, beste guztietan bezala, legeak eskaintzen dizkion eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu, bere askatasuna ekiditeko egin den lege erabilpen maltzurra gaitzesten dugularik.

5.- Konponbideak guztien eskubideen begirunetik etorriko direla zinez sineste dugu, eta horregatik, deialdi berezia luzatzen diegu prozesu honetan inplikaturik dauden alde guztiei eskubide horiekiko konpromiso sendoa har dezaten.”

6.- Gobernuko Presidente den Jose Luis Rodriguez Zapaterori helarazi hartutako erabakia.

ETXERATEk aurkeztutako mozioaren bozketa

Lehendakari andreak bozketapean jarri du Etxeratek aurkeztutako mozioa

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 0

Kontrako botoak: 7 (EAJ 4, EA 3,)

Abstentzioak: 2 (PSE-EE/PSOE 1,IU/EB 1)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena ez onartutzat aitortu du Alkate andreak.



Segidan, Alkateak andreak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du.

Santamaria jaunak irakurri du testua euskaraz, eta Carrasco jaunaren eskariz, itzultzaileak irakurri du gaztelerazko testua.

3.- EAJ/PNVek aurkeztutako mozioa Euskal Erakundeen judizializazioaren kontra.

Proposamena

Euskal herritarrek emandako aginteari modu arduratsuan aurre egiteagatik, Ibarretxe lehendakaria kriminalizatuta, botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta, Ordiziako Udalak, "Euskal Erakundeen Alde" ekimenarekin bat eginaz honako adierazi nahi du:

1.- Instituzio politikoei eta retaren borondatearen ordezkari zuzenak direnei dagokien funtzioa mugatzea bilatzen duen justiziaren politizazioa salatu nahi dugu, eta gure laguntasunik sendoena eta irmoena adierazi nahi diogu Lehendakariari, bere kontra Euskal Erakundearen Auzitegi Gorenak ireki duen zigor kausaren aurrean. Honek, bere oinarritzko eskubideak eta gure herrian eman beharreko eximen politikoa zuzentzeko duen ardura instituzionala ezereztu nahi ditu.

2.- Politika egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, judizializazioaren mehatxurik gabe; elkarrizketa, eztabaida eta jarduera instituzional eta politikoa ezin baitira inoiz legez kanpokoak izan eta, are gutxiago, delituzkoak, arazoei konponbide zuzenak emateko.

3.- Jakin badakigu larria dela justiziak demokraziaren zutabeen kontra politika jarduera egiteko eskubideen kontra eta gure instituzioen balorearen kontra eragindako erasoak; ondorioz, Lehendakariaren kontra irekitako zigor kausa arrazoi gabea bereala ixtea exijitu nahi dugu.

Akordio honen berri Euskal Herriko Auzitegi Goerenaren Presidenterari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Presidenteari emango zaie.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Dubreuil jaunak

Mozioaren gaineko 3 nabardura egin ditu:

1.- Ez dator bat Euskal Herriko Justiziako Epaitegi Gorenaren jarrerarekin, Lehendakariaren aurka irekitako auzi penala dela eta.

2.- Ez dago ados justizia politizatzearekin, bestela, botere independentea deslegitimatzen da eta.

3.- Hala ere, pentsatzen du Lehendakariak kritika politikoa merezi duela, Madrilera azken atentatuaren ondoren, gaitzetsi ez duten pertsonekin elkartu delako.



Horregatik, mozioaren aurkako botoa emango du.

Agirre jna.

Jendartetik 4.puntu bat erantsi zitekeela esan da, gatazkaren jatorria alderdi politikoen ilegalizazioa dela esateko, eta Ibarretxe jauna ez litzatekeela justiziarekin dagoen egoera horretan egongo, alegia, alderdien legea ez balego.

Alkatea

Bere taldea behin baino gehiagotan azaldu dela alderdieni legalizazioaren aurka esanez erantzun dio Alkateak, eta, beraz, Agirre jaunak eskatutako puntua sartzeko inolako eragozpeni kez duela.

Iturrioz jna.

Dubreuil jaunari erantzun dio zuzenbideko estatu batek, esan nahi duela botere politikoa eta judiziala independenteak direla. Politikoek jartzen dituztela epaileak, eta botere politikoak esku hartzen duela botere judizialean, eta botere judizialaren defentsa egiten denean, botere judizialaren independentzia esan nahi duela, eta hori errealitatean ez dela ematen.

4.puntua mozioan sartzea bozkatu da lehenik, jasotako edukiarekin.

Bozketa

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 3, EA 3, 2)

Aurkakoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 1 (IU/EB)

Beraz Alkate andereak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du ondoren aipatzen den bezala idatzita gelditzen delarik:

Proposamena

Euskal herritarrek emandako aginteari modu arduratsuan aurre egiteagatik, Ibarretxe lehendakaria kriminalizatuta, botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta, Ordiziako Udalak, "Euskal Erakundeen Alde" ekimenarekin bat eginaz honako adierazi nahi du:

1.- Instituzio politikoei eta retaren borondatearen ordezkari zuzenak direnei dagokien funtzioa mugatzea bilatzen duen justiziaren politizazioa salatu nahi dugu, eta gure laguntasunik sendoa



eta irmoena adierazi nahi diogu Lehendakariari, bere contra Euskal Eriko Auzitegi Gorenak ireki duen zigor kausaren aurrean. Honek, bere oinarrizko eskubideak eta gure herrian eman beharreko eximen politikoa zuzentzeko duen ardura instituzionala ezereztu nahi ditu.

2.- Politika egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, judizializazioaren mehatxurik gabe; elkarrizketa, eztabaida eta jarduera instituzional eta politikoa ezin baitira inoiz legez kanpokoak izan eta, are gutxiago, delituzkoak, arazoei konponbide zuzenak emateko.

3.- Jakin badakigu larria dela justiziak demokraziaren zutabeen kontra politika jarduera egiteko eskubideen kontra eta gure instituzioen balorearen kontra eragindako erasoak; ondorioz, Lehendakariaren kontra irekitako zigor kausa arrazoi gabea bereala ixtea exijitu nahi dugu.

4.- Adierazi Alderdi politikoen ilegalizazioa dela gatazkaren jatorria.

Akordio honen berri Euskal Herriko Auzitegi Goerenaren Presidenterari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Presidenteari emango zaie.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 3, EA 3)

Abstenzioak: 1 (IU/EB)

Aurkakoak: 1 (PSE-EE/PSOE 1)

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du.

4.- 2007ko aurrekontu orokorra

Proposamena

Plenorako Gaiari Batzordeak, 2007ko otsailaren 14ean egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion Alkateak idatzitako Aurrekontu-proiektuari eta Osoko Bilkurari proposatzen zaio honako hau onartzea

AKORDIO PROIEKTUA.



Alkateak proposatu eta idatzitako 2007rako Aurrekontu Proiektua onartu, kapitulukako honako laburpenaren arabera:

SARRERAK

1 ATALBURUA	IZENA	EURO
1	Zuzeneko zergak	1.837.980
2	Zeharkako zergak	522.500
3	Tasa eta beste sarrera batzuk	2.824.972
4	Transferentzia arruntak	6.464.656
5	Ondare-sarrerak	132.525
6	Besterenganatzeagatiko benetako inbertsioak	10.133.587
7	Kapital transferentziak	102.000
8	Finantza-aktiboen aldaketa	45.000
9	Pasibo finantzarioen aldaketa	4.210.860
GUZTIRA		26.274.080

GASTUAK

1 ATALBURUA	IZENA	EURO
1	Langileen ordainsariak	3.733.801
2	Higiezin arruntak eta zerbitzukoak erosteko	5.600.970
3	INTERESAK	503.828
4	Transferentzia arruntak	1.325.680
6	Benetako inbertsioa	4.920.447
7	Kapital transferentziak	302.400
8	Finantza-aktiboen aldaketa	1.903.411
9	Pasibo finantzarioen aldaketa	7.983.543
GUZTIRA		26.274.080

Honako Aurrekontu hauen osaketak ematen du hori guztia:

KORPORAZIOAREN BEREZKO AURREKONTUA,

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap:-	1.837.980	1.kap:-	2.809.680
2.kap:-	522.500	2.kap:-	2.988.624
3.kap:-	1.542.300	3.kap:-	217.053
4.kap:-	5.336.750	4.kap:-	2.139.088
5.kap:-	117.625		
6.kap:-	0.-	6.kap:-	1.000.100
7.kap:-	102.000	7.kap:-	302.400



8.kap:-	71.500	8.kap:-	73.400
9.kap:-	540.033	9.kap:-	540.343
GUZTIRA	10.070.688	GUZTIRA	10.070.688

HERRI ANTZOKIAREN eta SAN JOSE EGOITZAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap:-	714.856
2.kap.		2.kap:-	1.556.035
3.kap:-	812.132	3kap.	
4.kap:-	1.455.659	4.kap.	
5.kap:-	3.100		
6.kap.		6.kap.	
7.kap.		7.kap.	
8.kap.		8.kap.	
9.kap.		9.kap.	
GUZTIRA	2.270.891	GUZTIRA	2.270.891

HERRI ANTZOKIAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap:-	68.565
2.kap.		2.kap.	72.770
3.kap.	51.600	3.kap.	50
4.kap.	81.785	4.kap.	
5.kap.	8.000		
6.kap.		6.kap.	
7.kap.		7.kap.	
8.kap.		8.kap.	
9.kap.		9.kap.	
GUZTIRA	141.385	GUZTIRA	141.385

MAJORI KIROLDEGIAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap:-	140.700
2.kap.		2.kap:-	648.200
3.kap:-	418.940	3.kap:-	6.410
4.kap:-	451.150	4.kap:-	47.280
5.kap:-	9.800		
6.kap.		6.kap:-	36.000
7.kap.		7.kap.	



8.kap.		8.kap.	
9.kap:-	28.400	9.kap:-	29.700
GUZTIRA	908.290	GUZTIRA	908.290

ORDIZIA LANTZEN SAREN BEHIN BEHINEKO BALANZEA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap.	
2.kap.		2.kap:-	335.341
3.kap.		3.kap:-	286.315
4.kap.		4.kap.	
5.kap.			
6.kap:-	10.133.587	6.kap:-	3.884.347
7.kap.		7.kap.	
8.kap.		8.kap:-	1.858.411
9.kap:-	3.670.827	9.kap:-	7.440.000
GUZTIRA	13.804.414	GUZTIRA	13.804.414

Honako Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua onartu:

2007KO AURREKONTUA EGITEKO OINARRIAK

1.- 2007ko ekitaldi ekonomikoan, Ordiziako Udalak aurrekontuko hasierako kredituen kopuru osoko %1erainoko abalak mailega ditzake. Erakunde Autonomoek ezingo dute bermerik eman, ezta hirugarrenen aurreko edozein izaerako garantiarik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko partida hauek, handitzeko moduko izaera dute, bakoitzari ematen zaion finantziazioaren arabera.

GASTUAK

Foru Aldundiak herri-zergak
Aldundiak
Derrigorrezko dirubilk.kontratua
Majori Kiroldegiari ekarpena
Ibilgailuak kentzeko
Bide-seinaleak mantentzeko (pilonak)

Ue 3/4/7.1 urbanizatzeko 3/4/7.1

SARRERAK

Sarrerak . Kontzeptuak 112.01, 112.02, Foru
130.01 Eta 130.02.
392.01 eta 393.01 kontzept. sarrerak
Alokeragatiko sarrerak.
Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak.
Aberiak sortzen dituztenen sarrerak
.
Jabeen ekarpenak

Alkatetzaren dekretu bidez egingo da kreditua handitzeko espedientearen onarpena.

3.- Funtzio-talde bereko barruan egin behar diren kreditu-aldaketak, arloko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu eta Alkateak egindako dekretuz baimenduko dira.



Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu transferentziak Osoko Bilkurari dagozkie.

Inbertsioetarako kredituak murrizteko balio duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da.

Gai horretan, Alkate anderearentzako zehaztutako eskumen berak izango dituzte Erakunde Autonomoetako lehendakariak baimenduko dira.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako gastuei erreparatuko dio: Baimenduan (A) edo Xedatutakoan (D) abenduaren 31an zegoena. Alkateari dagokio Espedientea onartzea

5.- Bata bestea gehituz gero, aurrekontuaren %5a baino igoera ez den kopurua onar dezake Alkateak kreditu gehigarrien espedienteetan.

6.- 833.121.00.01 partidaren (langileentzako maileguak) kreditua erabiltzeko, aurrez interesatuek eskatu beharko dute, proposatzen duten gastuaren beharra eta aurrekontua arrazoiturik. Ogasun delegazioak mailegua ematea komeni den ala ez iritziko du, eta aldekoa bada, Alkatezaren dekretu bidez betearaziko da.

7.- Dedikazio osoko kargudun politikoen ordainsariak, Udaleko langileen ordainsariak igotzen diren neurri berean igoko dira.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, dagozkion gastu-partidetan kopuru bereko gastu-kredituak jarriko dira. Horiek jartzekok Alkate anderearen baimena beharko da.

9.- Honako hauen gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzekeo.
- Kanpoko lanak kontratatzekeo.
- Mantenukoak bakarrik ez diren lanak udal zerbitzuek egitea.
- Inbetariagarria den materiala erostea.

Alkatezaren dekretu bidezko alde zuzeneko onarpena eskatuko da, aurrez Kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da.

Alkatezaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldiaraziko da gastu-espedientearen tramitazioa.

Aipatutako gastuei dagozkien fakturak, dagokion Delegaziora eramango dira, oniritzia jasotzeko.



10.- 2 hilabetean behin Kontu-hartzaileak aurrekontu partiden egoeraren berri emango dien Delegazioetako arduradunei, eta behar diren neurriak hartu beharko dira onartutako kreditua ez gainditzeko.

Dagoen kreditua behar adinakoa ez dela uste bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren behar berriak daudelako, dagoen Delegazioak kreditu osagarria ematea proposatuko du; horretarako dagoen finantziazioa proposatuz edo kreditu-soberakina erabiltzeko eskatuz, balego.

11.- Dietak.- Alkate eta Zinegotziek, eta Udal langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere Udal kompetentziako gaiak gestionatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du izan.

Gastu horien kopuruak honako hauek izango dira:

Norberaren ibilgailuan Autonomia Erkidego barruko joan-etorria, 0,29 euro/km

Gosaria : 6.- euro, bazkaria : 15.- euro, afaria : 15.euro

Alojamendua: 3 izarreko ostatua.

Ikastaro edo azoketara joanez gero, bazkari, afari eta lojamenduetarako ezarritako mugak erabiliko dira.

Erakunde arteko harremanengatik horiek baino gastu handiagok egin behar direnean bakarrik estaliko ditu Udalak, baina aurrez dagozkion fakturak ekarri beharko dira.

12.- Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan buruzagi, funtzionario edo Korporazio kideek behar ez diren ordainketak itzultzeko ardua izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera.

Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurreragatik, erru edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela era, gastu eta ordainketen agintariak eta Kontu-hartzaileak desegokia dela idatziz ohartarazten ez duen bitartean, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatezaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, 360,- euro baino gutxiago balio dutenean, hala era, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du inolako eskumenik inoren esku utzita, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.artikuluaren ezarritakoak ditu bere esku.



15.- Honako hauek izango dira kredituen lotura juridikoen mailak:

Programa funtzionala eta kontzeptua:

Transferentzia arruntak eta kapitalekoak
Benetako inbertsioa
Aktibo finantzieroen aldaketa.

Funtzio-programa eta kapitulua:

2 kapitulua
Finantza-gastuak
Pasibo finantzarioen aldaketa

Langile gastuei dagokion kapitulua

2 kapituluko partida askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta partida askotako kredituak agortu ez daitezzen (kredituen lotura juridikoen mailak estu-estu aplikatuta), kontu-hartzaitzaren kontrola 2007ko azarora arte egingo da aurrekontu-partidan.

Gainera, honako partida hauei urte osoan jarraipen banakatua egingo zaie, nahiz eta azkenean artikuluko honen hasieran ezarritako kredituen lotura juridikoko mailak aplikatu.

PARTIDA	IZENA
226.111.00.02	Protokoloko ekintzak, Gobernu organoak.
231.111.00.01	Dietak, joan-etorriak, Gobernu organoak.
213.222.11.01	Udaltzaingoko ibilgailuak mantentzeko.
210.222.12.01	Trafikoko bide-seinaleak mantentzeko.
211.422.12.01	Eraikinen mantenua, Urdaneta ikastetxea
212.422.12.01	Makina,lanabes eta tresnak mant., Urdaneta ikastetxea
227.432.10.07	Hirigintzako estudio teknikoak.
212.433.00.01	Makina,lanabes eta tresnak mant., kale argiteria
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategiak mantentzeko. Parke eta lorategiak
212.441.10.01	Makina,lanabes eta tresnak mant., Urak
210.441.20.01	Makina,lanabes eta tresnak mant., Saneamendua
226.451.10.99	Kultur ekintzak.
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal Jaiak. Beste ospakizun batzuk.
226.454.12.99	Euskal Jaiak. Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak.
226.454.13.99	Eguberria.
210.511.00.01	Kaleak mantentzeko.
226.622.31.96	Azoka bereziak.
226.622.31.97	Ardoaren azoka.
226.622.31.99	Eguberriko feria berezia.



16.- Ordainketak Ordainketak egiteko ohiko metodoa bankuko transferentzia izango da.

Udal Kontu-hartzailetzan faktura sartzen denetik 60 egun baino lehen ordainduko dira, aurrez ordaintzeko oniritzia edo adostasuna badute.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate andereak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkatea

Proposatu den aurrekontua trantsizioko aurrekontua dela esan du, eta sartzen den korporazioak, hauteskunde ondoren, dagokiona erabakiko duela kardua hartzen duenean.

Udalaren menpeko erakunde autonomo eta enpresa edo erakundeetako aurrekontuak aipatu ditu.

Udalaren berezko aurrekontua, sarreretako 10 milioi euro eta gastuetako 9.200.000 euroren arteko aldea, inbertsioetarako aurreikusten dena da.

Legealdiaren hasieran %10aren inguruko aurrezki arrunta lortzeko ahalegina bereganatu zuen Udalak. 2007ko aurrekontuan zerbait gutxiago da, %8a, eta arrazoia da sarrerak %4an handitzen direla da, eta gastuak, berriz, %9aren inguruan.

Aurtengorako aurrekontuekiko esan du:

.- Andres Urdaneta jaio zeneko 5.Mendeurrenerako partida berezia dago, aurrekontua desitxuratu dezakeena nolabait, gastuen atalean.

.- Aurtun bukatuko diren IZARTUko diru-laguntzako programak.

.- Hego Biala eta Gazte Lekua, 2006an egingo diren obrak dira, baina atzerapen bat izan dute eta 2007ko aurrekontuan sartuko dira. Horrela, 2006ko aurrekontuaren likidazioa garrantzizkoa izango da. 2006rako aurreikusitako gastuak egokitu dira, eta 900.000,- € Altamira kirol-guneko gastuak finantzatzeko, handitu egin baitira. Hego Bialeko obrak 2006rako aurreikusi ziren, eta proiektua edo lehen ideia aldatu da, eta horrek ere 200.000,- €ko igoera ekarri duela, aurtengorako inbertsioen proiektuan aurreikusten dena.

Aurreikusitako gainerako gastuak Udaletxeko eta udalerriko oinarritzko beharrei aurre egiteko gastu arruntak dira.

PSOEk aurkeztutako aurrekontuekiko proposamen edo emendakinaren berri eman da.



Besteak beste, Plan Estrategikoko Gizarte Ongizateko lan-taldetik sortutako hainbat proiektuetarako partida batzuk, baita urtez urte errepikatzen diren gai turistikoa sustatzeko neurriak ere.

Dubreuil jna.

Aurka dauden partida batzuk segitzen dutela esaten du. Etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko Udalerako onartutako ereduaren aurka dagoela esan du.

San Jose Egoitzan eta Eguneko Zentroan burutu behar diren inbertsioen aurka dagoela esan du, Foru Aldundiak %75a eman behar duela eta, gutxi iruditzen zaio. Gastuen %100a bereganatu beharko luke.

Gainera uste du Foru Aldundiak Eguneko Zentrorako kudeaketarako gastua bereganatu beharko lukeela.

Andres Urdanetaren 5.mendeurrena dela eta, gastuak aurreikusten direla esan du, baina ez sarrerak, eta horrekin ekintza gehiago egin zitezkeela.

Alkatea

Sarrera aurreikustea zuhurtziagabekeria iruditzen zaio.

Kontu-hartzaile jna.

Gastuak jakin egiten direla esan du, eta, beraz, aurrekontuan sartu behar direla, baina, sarrerak, ezagutzen ez direnez, ez sartzea dela zuhurrena.

Dubreuil jna.

Bere botoa Aurrekontuen aurkakoa izango dela esan du, inolako proposamenik kontuan hartzen ez delako.

Santamaria jaunari galdetzen dion ola egin behar den Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Mapa 2010ean.

Santamaria jn.

Gizarte ongizate mapa hori Ordizialdeakoari dagokiola esan du.

Gaur Ordizian, 14 eskaera dauden Eguneko Zentrorako eta zentro horrek, egiten denean, 15 toki izango ditu. Gainera, Foru Aldundiak hitza emana du, beharren arabera handituko dela zentroa.

Egoitza birmoldatzeko obrekin, 72n geratuko da plaza-kopurua, gaur egun bezala, ia ia, 70.

Santamaria jaunak esan du gaur egungo beharrei aurre egin behar zaiela eta bilakaera ikusten joan behar dela. Ordiziarrentzat bakarrik izango da Eguneko Zentroa.



Carrasco jna.

Gaur egun baino plaza bat gehiago batekin Eguneko Zentroa egitea, oso eskasa dela esan du.

Antoñana anderea

Gaur egun Eguneko Zentroa izatea aurrerapen handia dela iruditzen zaio, gaur egun ez daukaguna.

Dubreuil jna.

Zentroa egitearekin oso pozik dagoela esan du, baina beharrei aurre egiteko behar adinekoa ez dela izango uste du.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (EAJ 3, EA 3,)

Aurkakoak: 2 (PSE-EE/PSOE 1, IU/EB 1)

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

5.- 2007rako Plantila Organikoa.

Proposamena

Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. atalean, eta Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeko 20. atalean adierazten denez, Udalbatzarrak aurrekontua onartzen duenean, funtzionario, lan-legepeko langile finko eta aldi baterako langileez betetako lanpostu guztiak bertan ageri diren urteko langile-zerrenda onartu behar du.

Aipaturiko araudia eta araudi horren inguruko aurrekin, azterketa eta gainontzeko ziurtagiriei jarraiki, 2007rako langile zerrenda prestatu dute Idazkaritza eta Kontuhartzaitza Zerbitzuek, beti ere, aipaturiko xedapenek agindutakoa kontutan izanik.



Aldi berean, S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo bakoitzak (Majori kiroldedia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) goian aipatu artikuluen arabera, 2007rako Plantila Organikoak prestatu ditu eta Plenokorako Gaien Batzordeari aurkeztu dizkio.

Honen arabera, segidakoa onartzeko proposamena eginten da

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- Onartzea Udal honetako Funtzionarioentzat gordetako lanpostu guztiak barne diren 2007ko ekitaldirako langile-zerrenda, akordio honekin batera doan eranskinean ageri dena.

Bigarrena.- S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo 2007ko ekitaldirako bakoitzeko (Majori kiroldedia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) Langile Zerrendak hasieran onartzea, lan-legepeko langileentzako gordetako lanpostuak barne, bidalitako ereduaren arabera.

Hirugarrena.- Toki-jaurbideari buruz indarrean dauden xedapenak biltzen dituen Testu Bateratuko 127. atalean xedatutakoaren arabera, onartutako agiri hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Eusko Jaurlaritzako dagokion sailera eta Gipuzkoako Foru Aldundira ale bana bidaltzea.

Laugarrena.- Agiri hau behin-betirako onartutzat jo, erreklamaziorik aurkezten ez bada behintzat.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiaren amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 3,PSE-EE/PSOE 1 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate andereak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

6.- 2007rako lanpostuen zerrenda.

Proposamena

Toki-Jaubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 atalak eta Funtzio Publikoari buruzko legeko 14.ak diotenari jarraiki, udalbatzarrari dagokio udaleko lanpostu guztien zerrenda egin eta onartzea, aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak barne direla, eta funtzionario, lan-legepeko langile finko eta aldi baterako langileenak zeintzuk diren bereiztuta.

Arlo horri buruzko legedia kontutan izanik, aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak bilduz hartzen dituen zerrenda prestatu dute Idazkaritza eta Kontuhartzaitzako Zerbitzuek, Funtzio Publikoari buruzko Legeko 15. atalean agindutako ereduari jarraiki.

Horrez gain, Idazkaritza eta Kontuhartzaitzak egindako arauzko txostena irakurri, eta lanpostua eta espero diren ohiko sarrerekin lanpostuek duten portzentai-erlazioaren azterketaren berri ere eman da.

Hizkuntza Normalkuntzari buruzko 86/1997 Dekretuko 9. atalean adierazita agindutako prozeduraren izapidetza bukatu, eta Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legeko 97.ak adierazitakoari jarraituz, hizkuntza eskakizunak derrigortasun egunak ere sartu dira lanpostu zerrendan.

Aldi berean, S.M, eta Erakunde Autonomo Administratibo bakoitzak (Majori kiroldegia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) goian aipatu artikuluen arabera, 2007rako lanpostu zerrendak prestatu ditu, aurrekontuan behar bezala hornituak.

Hau guztia ikusita, segidakoa onartzeko proposamena egiten da

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2007rako udal honetako Lanpostu Zerrenda hasieran onartzea, aurrekontuan behar bezala hornitutako lanpostu guztiak sartuz, akordio honekin batera doan eranskinean ageri den bezala.

Bigarrena.- S.M. eta Erakunde Autonomo Administratibo bakoitzeko (Majori kiroldegia, San Jose egoitza eta Herri Antzokia) 2007rako ekitaldirako Lanpostu Zerrendak onartzea, aurrekontuan behar bezala hornituak.



Hirugarrena.- Toki-Jaurbideari buruz indarrean dauden xedapenak biltzen dituen Testu Bateratuko 127. atalean eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki, onartutako agiri hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Eusko Jaurlaritzako dagokion sailera eta Gipuzkoako Foru Aldundira ale bana bidaltzea.

Laugarrena.- Lanpostu Zerrendak behin-betirako onartutzat jo, erreklamaziorik aurkezten ez badira behintzat.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 3,PSE-EE/PSOE 1 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

7.- Kreditu gehigarrien 1 zk.dun espedientea onartu.

Proposamena

007ko aurrekontua egiterakoan, beharrezko diren inbertsio guztiak ezin direla sartu ikusi da, inbertsio horiek denak finantzatzeko behar adina soberakin arrunt ez dagoelako, eta ezin da 2007an egin beharreko amortizazioetako kopuruak baino mailegu handiagoak kontratatu.



2007ko Aurrekontua tramitezko aurrekontua denez, ohiko funtzionamendurako normalenak diren inbertsioak sartu dira bertan, eta kanpoan utzi behar izan dira Altamirako kirol instalazioak bukatzeko behar den kopurua.

Bestalde, 2006ko aurrekontuaren likidazioko aurrerapenak aldeko egoera ageri du, Diruzaintzako Soberakin handiarekin, eta horietako zati handi bat baimen-fasetan edo xedapenetan geratu diren inbertsioak bukatzeko kreditu erabilerak finantzatzeko erabili beharko da, baina espediente honetan ere erabil daitekeena.

AKORDIO PROIEKTUA

2007ko aurrekontuan kreditu gehigarrien 1.espedientea onartu, guztira 900.000,00 euro, Altamirako kirol instalazioak bukatzeko, 2006-12-31rako diruzaintzako soberakinarekin finantzatuta.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, EA 3,PSE-EE/PSOE 1 IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

8.- Tráfico Ordenantza aldatzea.

Proposamena

Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzaren aldaketa

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2b) artikulua araberara, udalerririk eskumena du herriko kaleetan ibilgailu eta pertsonen trafikoa ordenatzeko.

Gainera, martxoaren 2ko 39/1990 Errege Dekretu Legeak, Trafiko, Motordun Ibilgailu eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legeko testua onartu zuenak, Udalei ematen die kaleetako zirkulaziorako udal ordenantzak onartzeko eskumena, eta horietan isunen kopuruak finkatzeko, aurrez ezarritako baremoen arabera.

Hori betetzeko, 2005eko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran onartu zen Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza. Ordenantza horrek ezarri zuen lege-hauste arinak 30, 60 eta 90 euro arteko isunekin zigortzea, lege-haustearen arabera.

Ordenantza indarrean egon den hilabete batzuk igarota, Udaltzaingoak adierazi du 40 eurotara igo behar dela, orain arte 30 euroekin zigortzen ziren lege-hauste arinak.

Bestalde, 17/2005 Legeak, puntukako gidatzeko baimena arautzen duenak, ezartzen duenez, administrazio bidean zehapen irmoek puntuak galtzea dakar. Beraz, jarritako zehapenengatik Udaltzaingoak puntuak kentzeko eskumen hori aplikatzeko, trafikoaren gaineko Ordenantzan azaldu behar da eskumena.

Hori horrela, Plenorako Gaiari Batzordeak honako hau proposatzen du

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Behin behingoz onartu Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantzarekiko aldaketa hauek.

a) Lege-hauste arin batzuetan jarri beharreko isunaren igoerarekiko aldaketa.

KODEA	Urratutako artikulua	Isuna. €.
105	IBILGAILUA MARTXAN JARTZEA EKIDITEKO ARAUZKO NEURRIAK HARTU GABE GERATU EDO APARKATU ETA BERTATIK IRTETEA. 92.3 RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40



107	OINEZKOEN PASABIDETAN APARKATU. 94.2.a RGC . 1428/2003 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
108	TXIRRINDULARIENTZAKO PASABIDEETAN APARKATU 94.2.a RGC . 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
109	ZIKULAZIORAKO GORDETAKO BIDEKO ZATIAN APARKATU 94.2.a RGC . 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
110	TXIRRINDULARIENTZAKO GORDETAKO ERRAILETAN APARKATU 94.2.a RGC . 1428/2003 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
114	HAINBAT ERABILTZAILAEN ZERBITZURAKO GORDETAKO BIDEETAN APARKATU EDO GERATZEA (BUS, TAXI...) 94.2.a RGC . 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
116	LARRIALDI-ZERBITZUETARAKO GORDETAKO GUNEAN APARKATU 94.2.a RGC . 1428/2003 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
117	UDAL-ZERBITZUETARAKO GORDETAKO GUNEAN APARKATU 94.2.a RGC . 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
118	ZAMALANETARAKO GORDETAKO GUNEAN APARKATU 94.2.c RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
119	ELABARRIENTZAKO BAKARRIK GORDETAKO GUNEAN APARKATU 94.2.d. RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
120	ESPALOI GAINETAN, PASEALEKUETAN ETA OINEZKOENTZAKO PASABIDEAK DIRENETAN APARKATU 94.2.e RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
121	BEHAR BEZALA ADIERAZITAKO PASABIDE IRAUNKOR BATEN AURREAN APARKATU 94.2.f RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
122	BIGAREN ILARAN APARKATU 94.2.g RGC. 1428/2003 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
139	OINEZKOENTZAKO IBILBIDEA LIBRE EGONDA, GALTZADATIK IBILTZEA 121.1 RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
169	LUZETARAKO MARRA HORIAREN ONDOAN DEBEKATUTAKO TOKIAN GERATU ETA APARKATU 171 RGC 1428/2003 IZAERA: ARINA	40
176	KALEAN EDUKIONTZIAK ETA OZTOPOAK JARTZEA DEBEKATUTA DAGO, UDAL BAIMENIK GABE BEHINTZAT 6.1 OMT. IZAERA: ARINA	40
177	ZOLADURAN APARKATZEKO PERIMETROTIK KANPO APARKATU	40



	9.3 OMT. IZAERA: ARINA	
179	BAIMENDUTAKO GEHIENEO PIXUA 3500 KILO BAINO GEHIAGOKO IBILGAILUAK HERRI ZAHARREAN APARTU, BAIMENDUTAKO TOKIETATIK KANPO 9.6 OMT. IZAERA: ARINA	40
180	APARKATUTA EGOTEKO GEHIENEZ DAGOEN DENBORA GAINDITZEA. 9.7.1.a OMT. IZAERA: ARINA	40
181	GUNE BEREAN APARKATU BERRIRO ERE 9.7.1.b OMT. IZAERA: ARINA	40
182	MUGATUTAKO PLAZAREN PERIMETROTIK KANPO APARKATZEA, BESTE BAT EDO BATZUK BALIORIK GABE UTZITA. 9.7.1c OMT IZAERA: ARINA	40
183	FERIKO GUNEAN APARKATU GOIZEKO 6:00ETATIK 14:00ETARA 9.11 OMT. IZAERA: ARINA	40
184	OINEZKO GUNEETATIK MOTORDUN IBILGAILUZ EDO MOTORREZ IBILTZEA 10.3 OMT. IZAERA: ARINA	40
185	DEBEKATUTAKO ORDUETAN ZAMALANAK EGITEA 12.3 OMT. IZAERA: ARINA	40
186	PATIN, MONOPATI EDO TXIRRINDUZ IBILTZEA, BAINA OINEZKOEN ABIADURARA EGOKITU GABE 15.3 OMT. IZAERA: ARINA	40
187	GALTZADATIK PATIN EDO MONOPATINEKIN IBILTZEA 15.3.1 OMT. IZAERA: ARINA	40
188	KALEAN EGOKITU GABEKO TOKIETAN JOKUAK EDO ANTZEKOAK EGITEA DEBEKATUTA 17.1 OMT. IZAERA: ARINA	40
189	IBILGAILUAK KALEAN GARBITZEA 17.4 OMT. IZAERA: ARINA	40

b) honako eranskina sartu:

II. ERANSKINA Puntuak galtzea dakartzan arau-haustekak

Administrazio bidean irmoa den erabakiz zigortzen den baimen edo gida-baimeneko titularrak (segidan azaltzen diren arau-hausteengatik) honako puntuak galduko ditu horietako bakoitzarengatik:



	PUNTUAK
1. ARAUZ EZARRITAKO ALKOHOL-TASA BAINO HANDIAGOZ GIDATZEA	
MG/L BALIOAK HARNASTUTAKO AIREAN, 0,50 BAINO GEHIAGO (0,30 MG/L BAINO BI URTEKO ANTZINATASUN GUTXIAGOKO GIDATZEKO BAIMENEN PROFESIONAL ETA TITULARRAK)	6
MG/L BALIOAK HARNASTUTAKO AIREAN, 0,25 BAINO GEHIAGO ETA 0,50 ARTE (0,15 MG/L (0,30 ARTE)BAINO BI URTEKO ANTZINATASUN GUTXIAGOKO GIDATZEKO BAIMENEN PROFESIONAL ETA TITULARRAK)	4
2. SORGORGARRI, SIKOTROPIKO, ESTIMULAGARRI ETA ANTZEKO ONDORIOKO SUSTANTZIEN PEAN GIDATZEA	6
3. SORGORGARRI, SIKOTROPIKO, ESTIMULAGARRI ETA ANTZEKO ONDORIOKO SUSTANTZIEN MAILA ANTZEMATEKO PROBAK EGITEKO BETEBEHARRA EZ BETETZEA	6
4. MODU AUSARTEGIAN GIDATZEA, EZARRITAKO NORABIDEAREN KONTRA GIDATZEA EDO BAIMENDU GABEKO LEHIAKETA ETA LASTERKETETAN IBILGAILUAK GIDATZEA	6
6. BAIMENDUTAKO ABIADURA %50EAN GAINDITZEA, BETI ERE GEHIENEO MUGA HORI 30 KILOMETRO ORDUKO GUTXIENEZ GAINDITZE BADA.	6
8. BAIMENDUTAKO PLAZA KOPURUA %50EAN GAINDITZEA EKARRIKO DUEN OKUPAZIOAREKIN GIDATZEA IBILGAILUA, GIDARIA KANPO, HIRI EDO HERRI ARTEKO BUSAK DIRENEAN IZAN EZIK	4
9. HORRETARAKO EGOKIA EZ DEN BAIMENAREKIN GIDATZEA IBILGAILUA	4
10. SUTEAK EDO BIDE-ISTRIPUAK SORTZEKO MODUKO GAUZAK BOTATZEA BIDERA EDO INGURURA	4
11. ZABARKERIAZ GIDATZEA, BIDEKO BESTE ERABILTZAILAENTZAKO ARRISKU NABARIA ETA GARRANTZITSUA SORTUZ	4
12. EZARRITAKO ABIADURA-MUGAK GAINDITZEA	
40 KM/H BAINO GEHIAGO, 6 ATALEAN ADIERAZITAKOAN SARTUTA BADAGO	4
30 KM/H BAINO GEHIAGO 40 KM/H ARTE	3
20 KM/H BAINO GEHIAGO 30 KM/H ARTE	2
13. PASABIDE LEHENTASUNAREN GAINEAN LEGEAK EZ BETETZEA, ETA STOP SEINALEAN GERATZEKO BETEBEHARRA, BAITA ARGI GORRIA PIZTUTA DAGOENEAN SEMAFOROETAN	4
15. TXIRRINDULARIAK GALERAZIZ EDO ARRISKUAN JARRIZ AURRERATZEA	4
16. NORABIDE ALDAKETA LEGE HONETAN JASOTAKO XEDAPENAK BETE GABE EGITEA ETA ARAUZ EZARRITA BEZALA.	3
19. ZIRKULAZIOA ZUZENTZEN DUTEN UDALTZAINEN SEINALEAK EZ ERRESPETATZEA	4
20. AURRETIK DOAN IBILGAILUAREKIKO SEGURITASUN-TARTEAK EZ MANTENTZEA	3
21. ARAU BIDEZ ZEHAZTUTA BEZAL GIDATZEKO BEHAR DEN DERRIGORREZKO ARRETAREKIN BAT EZ DATOZEN MODUETAN GIDATZEA, SAKELEKO MUGIGORRA, AURIKULARRAK EDO ANTZEKO BESTE GAILUAK ERABILIZ	3
22. HONAKO HAUETAN GERATU EDO APARKATU: ERREBUELTA, SESTRA-ALDAKETAK, BEHEKO PASABIDEAK, BIDEGURUTZEA EDO ZIRKULAZIO ETA OINEZKOENTZEKO ARRISKUA SORTZEKO TOKIETAN, ARAU BIDEZ JARRITAKOAK	2



23. HERRIKO GARRAIO PUBLIKORAKO ERRAILETAN GERATU EDO APARKATU	2
24. UDALTZAINEN ZAINGOA SAIHESTEKO GAILU EDO SISTEMAK JARRITA DITUZTEN IBILGAILUAK GIDATZEA, EDO ASMO BEREKO TRESNAK DITUZTENAK, BAITA RADARRAK ANTZEMATEKO MEKANISMOAK ERABILTZEA ERE	2
25. ARGIRIK GABE IBILTZEA, DERRIGORREZKOA DENEAN EDO ARAU BIDEZ JARRITAKORA MAKURTU GABE	2
26. SEGURTASUN-UHALIK GABE, KASKORIK GABE ETA SEGURTASUNERAKO BABES-GAILURIK GABE IBILTZEA, ARAU BIDEZ JARRITAKO GAILURIK GABE, ALEGIA	3
27. MOTORRETAN 12 URTEZ AZPIKOEKIN IBILTZEA, ARAU BIDEZ EZARRITAKO KASUETAN IZAN EZIK-	2

c) Ordenantzaren II. eta III. Tituluaren artean, "Puntuak kentzea" izeneko Titulua sartzea, artikulua bakarrik izango duena:

26. artikulua.

"Larriak eta oso larriak diren isunak, behin bide administratiboan irrimoak direnean, Trafikoko Buruzagitzari komunikatuko zaizkio gidari eta arau-hausleen Erregistroan anotatzeko.

II. Eranskinean agertzen diren arau-hausteen kasuan, esandako Erregistroan anotazioa egitean, automatikoki eta aldi berean, gida baimenetik puntuak kenduko dira."

2.- Ordenantza hori jendaurrera jarri beharko da berriro ere 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa:soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira:

Alkatea

Trafiko Ordenantza aldatzeko proposamen berri eman du.

Lariz jna.

Lariz jaunak esan du ea zergatik ez diren bere ordenantza batzuk zaintzen (animaliena...) eta zergatik Udaltzaingoa kez dituen bestea uzo batzuk zaintzen, Poligonoa, San Juan, San Bartolome, eta abar.



Dubreuil jna.

Aldaketak onartu eta gero, argibide-kanpaina beharrezkoa dela uste du, beste herritan egin den bezala, herritarren trafiko-ohiturak aldatzeko.

Isunak 10 € igotzea ez da izango neurri gomendagarririk.

Ormazabal jna.

Ormazabal jaunak esan du, espediente zigortzaileak ere izan direla, animaliak edukitzeko Ordenantzaren arau-hausteengatik jarritako isunengatik. Posta bidezko igorpenak igo direlako igoera.

Kontu-hartzaile jna.

Isunak tramitatzen denbora gutxi daramagula uste du, eta goiz dela egoeraren balorazioa egiteko.

Iturrioz jna.

Ikuspegia eman behar dela iruditzen zaio, eta jarritako helburuak betetzen diren ikusi, helburu horiek betetzen ez badira behar diren aldaketei ekiteko.

Bestalde, uste du, Lariz jaunari erantzunez, dagoen udaltzain-kopuruarekin, 5 edo 20 minututan, batez beste, gaizki aparkatutako autoa antzematea errazagoa dela, lau segundotan egin beharrak egiten ari den zakurra harrapatzea baino.

Arizmendi jna.

Uste du, Udalak eskumena berreskuratu eta gero, espedienteak bukatu arte tramitatzen direla. No entiendo el sentido de la campaña propuesta por el Sr.Dubreuil.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andereak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 5 (EAJ 3, EA 2,

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE 1 IU/EB 1,EA 1)



Beraz Alkate andereak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

9.- GOIEKI S.A.ren kapitala handitzea.

Proposamena

Goieki SArek kapital soziala handitzea erabaki zuen Udal Osoko Bilkurak 2006ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, "Beste zor batzuk" partidaren kontura eta elkartearen balizko galerak konpentsatzeko Udalak egindako ekarpenei dagokiona.

Con fecha 18 de diciembre de 2006 el Consejo de Administración de Goieki, S.A. en aras de concretar el acuerdo antes mencionado resolvió proponer a la Junta General de Accionistas el aumento de capital social por importe de 449.998,75 euros correspondientes a 74.875 acciones mediante compensación de créditos, así como modificar el artículo 5 de los Estatutos.2006ko abenduaren 18an, Goieki SAko Admistrazio Kontseiluak, lehen aipatutako erabakia gauzatzeko, kapital soziala igotzea proposatu zion Akzionisten Batzorde Nagusiari, guztira 449.998,75 euro 74.875 akzioei dagokiena, kreditu-kompentsazio bidez, eta gainera, Estatutuen 5 artikulua aldatzea.

Ello requiere la previa aprobación de todos los Ayuntamientos que integran la sociedad, por lo que a solicitud de Goieki, S.A. la Comisión de Asuntos para Pleno somete a la consideración del Pleno el siguiente:Horrek elkarte osatzen duten Udal guztien aurretiko onarpena eskatzen du; beraz, Goieki SArek eskariz Plenorako gaien batzordeak Osoko Bilkuraren eztabaidapean jarri nahi du honako

PROYECTO DE ACUERDOAKORDIO PROIEKTUA

Lehena:Lehena: Harpidetutako kapitalaren handitzea, kreditu berdinketa erabiliaz.

Goierriko Ekimena S.A. elkartearen kontabilitatean, enpresaren sorreratik eta 2005eko abenduaren 31n Udaletxeekiko zorrak daude isladatuta, bere kapital soziala osatzen dutenak udaletxean bai dira eta honen zenbatekoa 724.207.31 € delarik.

Zenbateko hauek, elkarteak denboran zehar jasandako galerak konpentsatzea helburu duten Udaletxeen ekarpenak dira.

Kreditu hauek, beraz, gairituak, likidoak eta galdagarriak daude.



Aipaturiko kredituak Fondo Propio bidez kitatu ahal izateko, 449.998.75€ko kapital zabalpena proposatzen dut, aurrekoen moduan, 6.01€ko balio nominaleko 74.875 akzio nominatibo berri jaulkiz; eskubide berdinekin eta hamar mila eta bitik (10002) laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamaseira (84.876), biak barne, zenbakiturik hurrenez hurren .

Aipaturiko kopurutik Ordiziako Udalarari 17.305 akzio 104.003,05 euroko guztizko balioan egokituko zaizkio, eta hauek elkartearen eratzte unean jasotakoekin batuta, Ordiziako Udalaren partaidetza Goieki, S.A.ren kapital sozialean 117.886,15 eurokoa izatera pasatuko da, 19.615 akzioetan ordezkaturata.

Bigarrena: Estatutuen aldaketa.

Aurretik proposaturako akordioaren ondorio eta modu gisa, Gizarte Estatutuen 5. artikularen aldaketa proposatzen da, honako idazkera izango duelarik hemendik aurrera:

5. artikulua: Kapital Soziala BOSTEHUN ETA HAMAR MILA EHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMOTAN (510.104.76€) geratuko da finkatuta, osorik izenpetuta eta ordainduta. Aipaturiko kapitala laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamasei partehartze sozialean banaturik ulertuko da, batetik (1) laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamaseira (84.876), biak barne, zenbakiturik hurrenez hurren, sei euro eta zentimo batekoa (6.01€) bakoitza, banaezinak.

Alkate-Lehendakaria eskubideratu Udal honen ordezkartzan aldeko botoa ematerakoan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate andreak hitzegiteko txanda eman ondoren, laburbilduz honako hauek izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate andreak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 8 (EAJ 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 1, IU/EB 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate andreak aurkeztutako proposamena onartutzat jo du.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du .

10.- 143 zenbakidun dekretuaren berri ematea Udalaren agerraldia Administrazioarekiko Autzi-errekurtsoan emandako sententziaren kontra aurkeztutako KASAZIO-ERREKURTSOari buruzkoa.

143.DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren –Administrazioarekiko Auzietako Sala– epatzeko zedula; Administrazioarekiko Auzietako Salak ebatzitako 826/2006 zenbakiko sententziaren aurka Javier Alonso Legorburuk eta bestek aurkeztutako kasazio-errekurtsoa; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Batzordeak 2004ko maiatzaren 11an hartutako akordioaren aurka jarritako 185/05-2 errekurtsoa, zeinaren bidez behin betiko onartu zen Ordiziako Plangintzako Arau Subsidiarioen Adaketa, AIU 22-San Juan interbentzio eremuari dagokiona.

- Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 90. artikuloa.

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Udalaren agerraldia onartzea, Javier Alonso Legorburu eta bestek, 185/05-2 Administrazioarekiko Autzi-errekurtsoan emandako sententziaren kontra aurkeztutako KASAZIO-ERREKURTSOAn.

*Beatriz Ruano Casanova Prokuradoreari ahalmen orokorra ematea, aipatutako diligentzietan agertzeko.

Ana Urkizu Kerejeta, Zuzenbidean lizentziatua eta Udal honetako behin behineko idazkaria izendatu aipatutako prozesuan horren defentsa egiteko.

Honako Dekretuaren berri ematea Udalbatzaren hurrengo osoko bilkuran.

Alejandra Iturrioz Unzueta alkate andreak agindu eta sinatu du, Ordizian, bi mila eta zazpiko otsailaren hamaseian, hori guztia, nik, Ordiziako idazkariak, egiaztatu dut.

Jakinaren ganean geratu da Osoko Bilkura.



Ondoren, Alkate andreak hurrengo puntuaren berri eman du.

11.- Galde-eskaria.

Ez da izan.



Eta beste aztergairik ez dagoenez, Alkate andreak bukatutzat eman du bilera eta nik, Behin-behineko Idazkariak, bertan esandakoa honako honetan jaso eta ziurtatu egin dut.

